

3. BANAKETA KANALA

Gure enpresaren izena ¡PA¡ S.L. da, eta Bizkaian patinete elektrikoak alokatzea da gure helburua. Batez ere Enkarterrietan, Bilboko erdigunean eta Bizkaiko Ezkerraldean lan egin nahi dugu. Guretzat oso garrantzitsua da jendeak gure zerbitzua erraz ezagutzea eta erabiltzea, horregatik hainbat bide erabiliko ditugu.

Lehenengo, sare sozialak erabiliko ditugu gure enpresa ezagutarazteko. Gaur egun jende askok Instagram, TikTok edo Twitter erabiltzen ditu, eta horietan gure zerbitzuari buruzko informazioa jarriko dugu: prezioak, nola erabiltzen diren patineteak, eskaintzak eta berriak. Gainera, bideo laburrak egingo ditugu patineteak modu seguruan nola erabili azaltzeko. Horrela, gazteengana eta helduengana iritsi ahal izango gara.

Bigarrenik, web orrialde bat izango dugu. Webgune horretan bezeroek patineteak erraz erreserbatu ahal izango dituzte, denbora desberdinetarako: ordu batzuetarako, egun baterako, hilabete baterako edo urte osorako. Webean informazio guztia argi egongo da: prezioak, arauak, segurtasun aholkuak eta gurekin harremanetan jartzeko moduak. Helburua da web orria sinplea eta erabiltzeko erraza izatea.

Azkenik, udalarekin batera lan egingo dugu. Gure zerbitzua jasagarria denez, udalen laguntza izatea garrantzitsua dela uste dugu. Udaletxeetan kartelak jarriko ditugu eta informazio guneetan gure enpresaren berri emango dugu. Horrela, herritarrek konfiantza handiagoa izango dute guregan.

Amaitzeko, banaketa kanal desberdinak erabiliz, ¡PA¡ S.L.-k jende askorengana iristea eta bere zerbitzua ondo ezagutaraztea lortuko du

